



Asteasu, goi mailako ziklo-krosaren topaleku

LEITZA ▶

Barriolak asteburuan egingo du azken saioa

Finalerako astebete du atzelariak ▶ 7

PROBAK ▶ Kadete, junior eta elite eta 23 urte azpiko txirrindulariak ariko dira, 14:00etatik aurrera

BERRIKUNTZAK ▶ Elizmendi auzoak Lamiategi ordezkatu du; ikusleentzat karpa jarriko dute ▶ 5

NEREA SANCHO ▶ PSIKOLOGOA ETA SEXOLOGOA

«Sexuaz hitz egiteko borondateaz gain formazioa ere behar da»

Lau urteko lanaren ostean 'Kilimak!' liburua aurkeztu du, haurrentzat ▶ 4



Aurkezpenaren une bat. E. E.

TOLOSA ▶

'Txuletoiaren festa' hasiko da gaur gauean Zerkausian

Atzo egin zuten aurkezpena; 5 egunez txuletaren hiriburu izango da herria ▶ 3

LEABURU ▶

Elektrizitateko eta argindar kableak lur azpian sartu dituzte

Etxeek su hartzea ekidin nahi dute ▶ 3



NEREA URBIZU

TOLOSA ▶

Gipuzkoako
Merkataritza
Ganberako bi
sari, herrira

ERREDAKZIOA

Joan den ostiralean Gipuzkoako Merkataritza Ganberak urteroko sariak banatu zituen. Irabazleen artean izan ziren Tolosako Alde Zaharra dendak eta Igarondo elkar-teak. Hauek, merkataritzaren sustatzaile onenari saria eman zuten. Bestalde, Gorrotxategi dietetika dendak, enpresa ideia onenari saria eskuratu zuen.

1991n sortu zuen Blanca Gorrotxategi bere dietetika denda. Bizi ohitura berriak, elikadura orekatuak eta abarrek, horrelako negozio bat sortzera eraman zuen. Egun, 500 saltoki daude Tolosan, eta hauek 1.100 lanpostu sortzen dituzte. Hauetako asko Igarondo eta Alde Zaharra elkarteen barruan daude.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebexa: 672411

- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228

▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroško dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garaioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitza autobus.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurramendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

TOLOSA ▶ POLITIKA



Askatasunaren Ibilaldia. Jokin Gorostidi eta beste hainbat erbesterratu, 1977ko Askatasunaren Ibilaldian, Telesforo Monzonekin batera. Itziar Aizpurua bera ere ageri da argazkian. Belaunaldi ezberdinak abertzaleek bat egin zuten ibilaldi hartan. TXALAPARTA ARGITALETXEA



Gazte gara gazte... Eta ez zuden konforme. 60ko hamarkadan ezagutu zuten biek elkar, eta kartzelak bakarrik alindu zituen bata bestearen ondotik. Gerora, biak bat izan dira beti. TXALAPARTA ARGITALETXEA



1997an, espetxera. Aizpurua eta Gorostidi, elkar agurtzen, kalez jantzitako poliziaiek Aizpurua atxilotu eta Herri Batasuneko mahaikidea izateagatik kartzelara eramateko unean. TXALAPARTA ARGITALETXEA

Jokin Gorostidiren 'autobiongrafia'

Jokin Gorostidiren biografia idatzi du haren bikote eta bidelagun izandako Itziar Aizpurua; atzo aurkeztu zuten

ERREDAKZIOA

Jendetza elkartu zen atzo goizean Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean, Jokin Gorostidi tolosarraren bizitza biltzen duen liburuaren aurkezpena. Ezker abertzaleko hainbat ordezkari, hedabide ugari eta, batez ere, Jokin Gorostidi eta Itziar Aizpurua-aren senide eta lagunak. Mahaian, berriz, Euskal Herriaren azken hamarkadetako historian protagonista izan den jendea: Itziar Aizpurua bera; Asunbe Etxebarrieta, Txabi Etxebarrietaren arreba; Bur-

gosko Prozesuan Gorostidi eta Aizpuruaekin batera auzupetutako Unai Dorronsoro; Txomin Ziluaga, Herri Batasunaren sortzaileetako, eta Mikel Soto, Txalaparta argitaletxeko editorea.

Jokin Gorostidi. Autobiongrafia liburuaren aurkezpenak elkartu zituen guztiak. Txalaparta argitaletxeko kideek adierazi zuten, izenburua irakurri orduko ohartzan da irakurlea hau ez dela ohiko liburua: «Ez da biografia bat, baina ez da autobiografia bat ere. Bien biografia da. Jokin Gorostidi eta Itziar Aizpurua-aren


biografia. Autobiongrafia. Itziarrek soilik idatz zezakeen Jokin-en biografia».

Jokin Gorostidiren biografia hau, halaber, pertsonala izanik ere kolektiboa dela nabarmendu zuen Mikel Sotok.

Itziar Aizpurua, berriz, Gorostidi eta biak ezker abertzaleko bi militante besterik ez direla izan nabarmendu zuen atzoko aurkezpenean.

Jokin Gorostidi Tolosako *Rondilla* kalean jaio zen 1944ko azaroaren 4an, eta aurtan hil zen, apirilaren 25ean. ETA erakunde armatuaren lehen urteetatik izan zen hainbat

LIBURUA ▶



Izenburua. *Jokin Gorostidi. Autobiongrafia.*
Egilea. Itziar Aizpurua.
Orrialdeak. 378.
Argitaratzailea. Txalaparta, Tafalla, 2006.

arlotako arduradun, eta Burgosko Prozesuan bi heriotza zigorrak ezarri zitzioten. Gerora, beti ere ezker abertzalearen baitako erakundeetan hainbat lanetan aritu izan zen.

TOLOSA ▶ KULTURA



Tolosa idi txuleta jaten hasteko prest

Erredakzioa ▶ Gaur hasi eta igandera bitarte izango den *Txuleta festa* atzo inauguratu zuten. Bertan izan ziren Ana Agirre, Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburua eta baita Tolosako alkatea ere. Ana Agirreri Zerkausia erakutsi ondoren, Julian Rivasen alargunak lore sorta jaso zuen, bere senarra izan baitzen Tolosan idi-txuleta jatearen ohitura sustatu zuena. ESTI EZEIZA

LEABURU ▶ AZPIEGITURAK

Etxe erreketak gehiagorik ez

Leaburuk apustu handia egin du etxe erreketak gehiago gerta ez daitezen, herriko argindar eta elektrizitateko kableak lur azpian sartu baititu

MADDI SOROA

Ezagunak dira azken hilabeteetan, Adunan edota Asteasun, besteak beste, erre diren baserrien kasuak. Goitik behera suak hartu ditu baserriak, guztiz kixkalita geratu direlarik horietako asko eta noiz edo noiz zauriturik ere izan da tartean. Horrelakorik ez gertatzeko, azpiegitura aldatuta egin dute Leaburun.

Jose Kruz Goñik Leaburuko alkateak adierazitakoaren arabera, «baserriak erretzeko arrisku handia dago, elektrizitate kableak sistema zahararren arabera eginak baitaude eta haize pixka bat egiten duenean txispa sortzen denez, etxeek sua hartzeko arrisku handia dago». Egoera horren aurrean, herrian berrikuntzak egiten hasi ziren urrian. Hala, San Sebastian ermitatik plazaraino doan errepidean lanak egin ziren argindarraren kableak lur azpian sartzeko.

Leaburuko Udalak ia urte osoa igaro du Iberdrolarekin negoziaketak lanetan eta Foru Aldundiari 15.000 milioiko obra zibila egiteko eskatu zion. Leaburuko alkateak adierazitakoaren arabera, ordea, «beraiek ez omen zuten beharrezkoa ikusten kableak lur azpitik sartu beharra eta laguntza ukatu digute».

Jose Kruz Goñik Gipuzkoa mailan erretako baserriak eta gertatu diren arazoaren aurrean «kableak lur azpian sartzeko eskubidea dugula» salatu du behin eta berriz.



Leaburun ez da horrelako kable posterik izango aurrerantzean, guztia lur azpitik joango baita. HITZA

Udaletxeak, ordea, bi orriko dokumentu baten bitartez eskakizun ofiziala egin zuen, «zorritzarrezko ezbeharren bat gertatuz gero zuten erantzunkizuna» izango dela adieraziz. Antza, eragina izan zuen azken eskaera horrek, 3.000 euroko laguntza eman baitzion Iberdrolak Leaburuko Udalari. Gogoratu, orotara, 48.000 euroko aurrekontua izan duela proiektuak.

Kableen desagerpena

Leaburun, San Sebastian ermitatik hasi eta plazara bitarteko kableak sistema zaharrean

eginak zeudenez, «haize pixka bat dabilen bakoitzean txispa sortzen da eta hori oso arriskutsua da baserriek su hartu baitezakete», adierazi du Leaburuko alkateak.

Egituraketa berriaren bitartez, baserrietako kableak kendu, era txirikordatuan jarri eta forratu egin dira. Modu honekin, haizea ibiliz gero ez dago askatzeko arriskurik eta beraz, Goñik esan bezala, «egituraketa berri honekin lortu dena da inguruko baserriak arriskutik kanpo geratzeko».

Emaitzarekin gustura egon arren eta herriko baserriak «arriskutik kanpo» daudela

ziurtatu arren ez dago gustura Leaburuko alkatea, izan ere, zera uste du: «Oso gogor kritikatzeko ditut Iberdrola eta Foru Aldundia, Iberdrola, ez duela lagundu horrelako egituraketa egiten eta Foru Aldundia, ez duela exijitzen horrelako kableek duten arriskutasuna ekiditea».

Etorkizunari begira apustu berria du Leaburuko Udalak eskuartean, telefono kableak ere lur azpian sartzeko, hain zuzen ere. Beraz, epe motzean Leaburun ez da hormigoizko posterik egongo ez eta argindar edota telefonorako kablerik ere.

LEABURU ▶

Arrospide gaur lehian Urrezko Aizkolarien Txapelketan

ERREDAKZIOA

Gaur hasiko da Lizarran Egur Sportek antolatutako seigarren Binakako Urrezko Aizkolarien Txapelketa. Guztira sei bikote ariko dira lehian, hiruna bikoteko bi multzotan, hain zuzen ere.

Anjel Arrospide leaburuarra izango da horietako bat eta Fausto Mugertza izango du bikote. Gogoratu iazkoan bigarren postua lortu zutela elkarrekin eta Arrospidek 2002an txapela eskuratu zuela.

Binakako Urrezko Aizkolarian ariko diren gainontzeko bikoteak, Donato Larretxea-Joxejuan Barberena, Luis Txapartegi-Joxe Etxebeste, Miel Mindegia-Antonio Senosiain, Floren Nazabal-Juan Jose Lopez eta Olasagasti-Peñagarikano izango dira.

Guztira sei proba egin behar harko dituzte aizkolariek eta ligaxkan ariko dira bikote guztiak elkarren aurka txapelketan.

iragarki laburrak ▶

LANA
Iturgina. Iturgin lanetarako pertsona bat behar da.
656 41 68 08.

SALGAI
Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995. urtekoa. 153.000 km liburuarekin. 18ko llantak eta tekuak. Egoera oso onean.
14.000 euro. 943 65 41 43.

NEREA SANCHO ▶ PSIKOLOGOA ETA SEXOLOGOA

«Sexuaz hitz egiteko borondateaz gain, formazioa ere behar da»

Nerea Sanchok lau urte eman ditu informazioa eta dokumentazioa jasotzen, emaitza 'Kilimak!', ikastetxean eta etxean erabilgarria izango den liburua izanik

NEREA URBIZU

Nerea Sancho sexologo eta psikologoa Altzon bizi den donostiarrak da, 1978. urtean jaio-takoa. Erein argitaletxearekin *Kilimak!* bere lehen liburua aurkeztu zuen atzo Donostian, Koldo Mitxelena kultur etxean. Lau urte eman ditu informazioa bilatzen, osatzeko.

Zer aurkituko dugu 'Kilimak!' liburuan?

Lehenik eta behin, esan behar da sexu heziketa eskoletan ematea eskubide bat dela. Idatzia, zehaztua dago Osasunaren Mundu Erakundearen eskutik: kontzeptuak badago baina bermatzea falta da. Liburuan 8 eta 10 urte bitartekoentzat egokitutako sexu heziketa informazioa eta ariketak aurki ditzakegu. Itziar Urkola psikopedagogaren laguntzaz egin dut eta edukin egokiak dira ume hautentzat. Argi izan ez dutela ulertzeko arazorik izango, oso azkarrak dira. Familia eredu, arraza, nahiz ezintasun ezberdinak dituztenak agertzen dira, hau da; edozein etxetan aurki dezakeguna. Ivan Landaren irudien pisu eta kalitateak ere garrantzitsuak da.

Zein da oztipoa sexuaren heziketa aplikatzeko garaian?

Borondatea badago, irizpideak ere, eta irakasle nahiz gurasoek sexuaz seme-alabekin hitz egin nahi dute, baina formakuntza behar da. Curriculumean sexu heziketa aurreikusita dago baina ez da eman beharrik. Zeharlerro bezala lantzen da, oso gutxitan, hau da; zeharka. Matematiketako ariketetan testua moldatuz, adibidez.

Komunikabideek laguntzen al dute sexu heziketan?



Nerea Sanchok *Kilimak!* liburuaren aurkezpena egiten duela ikusgai. N. URBIZU

Sexu heziketa 'Kilimak!'-en

Kilimak! izena du aurkeztutako liburua, 8-10 urte bitartekoei zuzendutakoa. Ereinek argitaratu du eta Durangoko Azokan erosi ahal izango da.

Nerea Sanchok egin du lehen hezikuntzako bigarren zikloan erabil daitekeen sexu heziketari buruzko liburua. Zazpi blokeetan dago banaturik: hauetan, gorputzen arteko ezberdintasunak, gorputzen

onarpenak nahiz onespenuak, mota guztietako harremanak, familia ereduak edo berdintasuna lantzen ditu, besteak beste. Etxerako, eskoletarako nahiz norberarentzako egokia da, ariketa eta guzti. Gida ere badu hezitzailearentzat. 20 euro inguru balio du liburua. 6-8 eta 10-12 urte bitarteko liburua hurrengo urterako egongo dira. ◀

Beti ez. Adierazi nahi duguna nahi gabe ez dute ondo isladatzen. Gure diskurtsoa boikotatu egiten dute: eskandaloaren bidea, morboarena hartzen dute askok eta kontzeptuak ez dituzte ondo manejatzen. Gure ardura ere bada, elkar hezi behar dugulako, nire ustez. Telebistako basura saioak, albiste-giek ematen dituzten irudiak

eta informazioa faltsua da askotan: irudi tamalgarrak.

Horrek ikusleengan eragina du, noski.

Bai. 14 urteko neskek aberats batekin ezkondu nahi dutela entzuten duzu, aldizkarietan atera nahi dutela, estetika kontuak... Hauek bizitza sexuala asko markatzen dute. 6 urteko umeengan ere norberarekiko

bazterketak jasaten ditu, gorputzarekin deseroso sentitzen delako. Ez baduzu zure burua maitatzen edo onartzen, zaila izango duzu harremanak ondo eramatea.

Komunikabideek noiz laguntzen dute?

Komunikabideei esker eduki berriak adierazi ditzakegu. Sexu eskubideak ere aldarrika daitezke eta baliabide asko ez dituenari ailegatu ahal zaizkio. **Gurasoek seme-alabekin hitz egin nahi dute.**

Orokorrean gizarteak eskatzen duen liburua da, material mota eta are gehiago, euskaraz. Neurria hartu behar zaio denari: honetarako, giltza bakoitzari dauden aukera guztiak ematean dago eta bera libre izango da aukeraketa egiteko. Carlos de la Cruzek esan zuen: «Sexu heziketaren helburua norberaren burua eta besteeen ezagutzea, onartzea, eta adierazpen erotikoa bizitzea da».

TOLOSA ▶

Haurrentzako zine eskaintza euskaraz eta bi euroren truke

Saioak gaur hasi eta igandera bitarte izango dira 17:00etan Leidor aretoan

N. URBIZU

Gaurtik hasita eta igandera bitarte Tolosako Leidor aretoan hainbat film ikusteko aukera zabaldu dute. Tolosako Udalak lagundu du eta bi euroren truke ikusi ahal izango diren pelikula guztiak 17:00etan hasiko dira.

Euskaraz izango dira denak. Gaurko filma *Prop eta Berta* izango da, zazpi urte bitartekoentzat aproposa, izan ere, auzoko duen sorginak munduko izakirik gaiztoena izan nahi du.

Biharkoan zazpi urte gorakoei zuzenduta dago. *Azti ikaslea* da ikusi ahal izango dena. Honetan, «ongia eta gaizkiaren arteko borroka estua» da islatzen saiatu direna.

Etzikoa, *Txoritxoak* izena du, «marrakiz bizidun zirraragarria». Zazpi urte bitartekoentzat aproposa da.

Mixina filmaren txanda izango da larunbatean. Zazpi urtetik gorakoei zuzendutakoa da. Honetan, Tibbie izeneko kazetariaren istorioak kontatzen dituzte. Laneko arazoak ditu, eta lanpostua galtzeko zorian dagoenean Mixina andere xelebre eza gutuko du.

Igandeko filma ere zazpi urte gorakoei zuzenduta dago. *Polleke* izena du, eta Sos Arrazakeria taldeak gomendatutakoa da. Polleke 11 urteko neska da eta mutil marokoar batez maitemindu da. Kultura ezberdintasunengatik arazoak izango dituzte biek.



Tolosako Udala
IRAGARKIA
Lanpostua: Aukera berdintasunerako agentea
Akats zuzenketa:
Aukera berdintasunerako agentea hautatzeko oinarrietan, euskarakoan, eskaerak aurkezteko epean, akats bat dagoela ikusi denez, eskabideak aurkezteko epea luzatu egin zaien akats horrek ukitu dituenek.
Hortaz, eskaerak aurkezteko azken eguna honako hau da: 2006ko abenduaren 13a.
Tolosan, 2006ko abenduaren Sean
Alkatea

ASTEASU ▶ TXIRRINDULARITZA



Lamiategi inguruko eremuan iaz egindako probaren une bat. I. GARCIA

Nazioarte mailako ziklo-krosa Elizmendi auzoan egingo dute

16:00etan abiatuko dira proba nagusiko txirrindulariak; karpa bat jarriko dute ikuslegoa euritik babestu ahal izateko

IMANOL GARCIA

Berritasunekin dator Asteasuko VIII. Nazioarteko Ziklo-Krosa. Lamiategiko eremuaren ordez, Elizmendi auzoan izango da ibilbidea. Bestalde, karpa handi bat jarriko dute ikuslegoa euriarengandik babesteko eta txirrindulariak ere bertatik pasako dira. Joxe Ramon Aiertzak antolatzaileetako bat eta Aitzondo elkarteko kidea adierazi duenez, «karpa horretatik ibilbide guztia ikusi ahal da eta txirrindulariak bertatik bertara ikusteko aukera izango da».

Urtero bezala, maila handiko txirrindulariak lehiatuko dira: Wesley Van Der Linden flan-

diarra (bi aldiz irabazi du Asteasun eta 2003 urtean 23 urte azpiko munduko azpi txapel-duna); Christian Heule suitzarrak (aurtengo Suitzako txapel-duna eta 8. UCiko sailkapenean); Radomir Simunek Kopako proba baten irabazlea eta 9. UCiko sailkapenean), Kamil Aufbuher txekiarrak (12. UCiko sailkapenean); Zdenek Mlynar txekiarrak (17. UCiko sailkapenean); eta David Willemsenflandiarra (bigarren iazko proban). Horien artean egongo da garaipena. Postu on bat lortzen saiatuko dira Unai Yus eta Javier Ruiz de Larrinaga euskaldunak eta Isaac Suarez espainiarra (lehenengo

postuan Espainiako sailkapenean). Ez da izango lehiari izateko irabazlea, David Seco, lesionatuta baitago.

Ibilbideak 2,6 kilometro izango ditu eta Lamiategiakoa baino lauagoa izango da. «Lokatza asko ez badago, ez da alde handirik izango aurreneko txirrindularien artean eta lehia bizia izango da», adierazi du Aiertzak. Goi mailako ziklo-krosa ikusi nahi duenak gaur du, beraz, aukera horretarako Asteasuko Elizmendi auzoan. Arratsaldean izango dira aurtengo probak. Kadete mailakoak 14:00etan hasiko dira. Junior mailakoak, berriz, 14:30ean eta elite eta 23 urte azpikoak 16:00etan.

VILLABONA ▶ ELKARTASUNA

Merkatu txikia, presoan eta iheslarien alde

Dagoeneko, eta hilaren 18ra arte, hasi dira gauzak jasotzen Kale Zaharreko lokalean

ERREDAKZIOA

Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak merkatu txikia antolatu du aurtengo ere preso eta iheslarien alde, hauen senideei dispertio politikak eragiten dien gastuei aurre egiteko. Dagoeneko posible du edonork etxean erabilerarik gabe dituen gauzak Kale Zaharrean (Behar Zana elkartearen aurrean) dagoen lokalera eramatea. Liburuak, diskoak, elektrogailuak eta abar eraman daitezke eta antolatzaileek balio eman ondoren salgai jarriko dituzte.

Hilaren 18ra arte egongo dira gauzak jasotzen, 18:00etatik aurrera astegunetan eta 11:00etatik 13:00etara

larunbatetan. Ondoren, hilaren 16an irekiko dute merkatu txikia, astegunetan 09:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, eta larunbatetan 09:00etatik 17:00etara.

Etxerategi berriki emandako datuen arabera 611 euskal preso politiko daude uneotan Espainia eta Frantziako espetxeetan. Batez beste Espainian 631 kilometrotara daude sakabanatuta eta Frantzian 820 kilometrotara. Presoei ohiko bisitak eta bisita bereziak egi-teagatik aurtengo gastua 13.484.587,30 eurokoa izango da. Horri aurre egiten laguntzeko, antolatzaileek herritarrrak animatu nahi dituzte beraien opariak merkatu txikian erosteko.

ANOETA ▶ KULTURA



Ipuin marraztuen artistak

Erredakzioa ▶ Hizki-Marrazki ipuin marraztuen lehiaketa antolatu du aurtengo estreinakoz Anoetako Udaleko Euskara eta Kultura batzordeek, Anoetako Herri Ikastolarekin elkarlanean. Pasatu den ostiralean egin zen sari banaketa, Euskararen Eguneko ospakizunen barruan. Lehiaketa LH3 eta DBH4ko ikasleei zuzenduta zegoen, bi helbururekin. Batetik, artista txikiak plazaratzeko aukera bideratzeko. Bestetik, trebetasun horren bidez lortutako emaitzen ondorioz, irakurzaletasuna areagotzen lagunduko duen tresna izatea. Argazkian, lehiaketako partaideak. HITZA



jantzi hitza ren jertseak

HITZAren egoitzetan salgai



OREXA ▶ KULTURA

Paulo Iztuetak Orixeren 285 gutun batzen dituen 'Orixek, gutunak' liburua idatzi du

1917 urtetik 1961era bitarteko gutunak bildu ditu Ibai Iztuetarekin elkarlanean eginiko lanean; «Euskal literaturaren historia berriz idatzi behar da», dio egileak



Paulo Iztueta, Joxe Juan Gonzalez de Txabbarri Gipuzkoako Ahaldu Nagusia eta Jokin apalategi liburuen aurkezpenean. IMANOL OTEGI/A.P.

JUAN LUIS ZABALA (Berria)

«Autohistoria ezin da egin atzeko historia, sakonekoa, ezagutu gabe. Eta sakonean dagoen historia hori bizi egiten da, baina ez da kaleratzen. Horregatik, sakoneko historia hori ezagutzeko tresna ezin egokiagoa dira gutun pertsonalak». Paulo Iztuetaren hitzak dira, bere seme Ibai Iztuetarekin elkarlanean apailatu berri duen *Orixek, gutunak (1917-1961)* (Utriusque Vasconiae) liburuen aurkezpenean. 373 gutun jasotzen ditu guztira liburua: 285 Nikolas Ormae-

txea *Orixek* idazleak besteri idatzi eta igorriak; eta 88 besteak Orixeko idazleari idatziak.

Liburu horrekin Gutun-sorta saila jarri du abian Utriusque Vasconiae argitaletxeak, euskal idazle klasikoaren gutun pertsonalen bildumei bideratua. Sail horrek zeresan handia emango duelakoan dago Iztueta. «Oso zaila da literatur testua osotasunean ulertzea sortzailearen barrua ondo ezagutu ezean». Iztuetaren ustez. «Lehen horren aldekoa banintzen ere, orain ez naiz inondik inora ere egilea eta haren obra berreiztearen aldekoa; elkarren

osagarri eta elkarren ulergarri dira biak. Eta inoiz liburu honekin zabalduko saila osatzen bada, euskal literaturaren historia berriz idatzi beharko da».

Gutun guztian ezin bildu

«Nik badakit gutun pertsonalak pribatuak direla, intimok», azaldu du Iztueta, «baina uste dut denbora tarte pat pasatu eta gero, distantzia bat dagoenean, irekitasunez jokatu behar dela. Azken batean, ez dago misterio handirik horretan, gizakiak baikara guztiok». Orixeren irakurketek aztarna

garrantzitsu baterako bideratu zuten Paulo Iztueta: Justo Maria Mokoroarena. Beste iturri askotara ere jo zuen gero: Bilbon dagoen Euskaltzaindiko Azkue Biblioteka, Donostiako Koldo Mitxelena kulturunea, Lazkaoko beneditarra, Bizkaiko Abertzaletasunaren Arteko Agiritgia, Jose Mari Aranaldearen artxiboa, Eusko Ikaskuntzarena...

Iztuetak badaki, hala ere, ez dituztelako inondik inora ere gutun guztiak jaso liburuan. «Batzuk puskatuta edo desagertuta daude, galdutzat emateko moduan; beste batzuk ez dakit

JOAN-ETORRIAK ▶

Gutunen hartzaileetako batzuk. Julio Urkixo, Joxe Mari Agirre Lizardi, Justo Maria Mokoroa, Resurreccion Maria Azkue, Gregorio Mujika, Txomin Jakakortajarena, Jokin Zaitegi, Manuel Lekuona, Jose Ariztimuño Aitzol, Telesforo Monzon, Jose Antonio Agirre, Federico Krutwig, Mercedes Contreras, Santi Onaindia, Andima Ibiñagabeitia, Koldo Mitxelena...

Gutunen igorleetako batzuk. Joxe Mari Agirre Lizardi, Resurreccion Maria Azkue, Manuel Irujo, Jesus Maria Leizaola, Andima Ibiñagabeitia, Antonio Maria Labaien, Nemesio Etxaniz, Federico Krutwig, Koldo Mitxelena, Iñaki Baztarrika, Mercedes Contreras...

noren eskuetan izan daitezkeen; eta beste batzuk ez dizkidan utzi. Utzi ez dizkidan gutunen inguruan, ezin dut ezer egin».

Loiolako (Azpeitia) jesuiten artxiboan gordetako gutunak daude Paulo eta Ibai Iztuetak euren jabeen baimena ez zuten, eskuratu ezin izan dituzten artean. Patxi Altunak gutun horiek erabili zituen *Orixek Jesusen Lagundian emaniko urteak (1907-1923)* lanean, baina gutunak bilduman sartzeko eskaria egin zuenean, 2005 urtean, Koldo Altzibarren erantzuna jaso zuen Paulo Iztuetak, telefonoz, esanez *Orixek* erantzuna ez zela haren gutunik agertzen.

Liburuari aurkibide analitiko erantsi diote Iztueta aita-semeek, ikertzaileentzat lagungarri izan dadin. Hiru ataletan dago banatuta aurkibide hori: *Gutunetan agertzen diren pertsonaia, aldizkari, liburu eta kutur elkarrean zerrenda gutun-zenbakien arabera sailkatua, Gutun-iturrien guneak eta Sailkapen kronologikoa*.

Autohistoria bultzatuko duen saila

Sail berri baten hasiera da Orixeren gutunekin osatutako liburua, «proiektu zabal baten lehen atala», Jokin Apalategi Utriusque Vasconiae argitaletxearen arduradunak iragarri duenez. Jokin Zaitegiri helduko zaio ondoren txanda, eta beste egile batzuen gutunekin osatutako liburua jasoko ditu aurrerago argitaletxeko Gutun-sorta sailak.

«Euskal munduak oraindik bere historia egin gabe dauka», Apalategiren ustez. «Nondik abiatu ez dakidan arren, nire ustez autohistoria bat egitea urgentziakoa da. Horrek ez du esan nahi berehala agortuko denik. Harrigarria da euskal unibertsitateetan horrenbeste urtean horren historia gutxi egin izana, eta are autohistoria gutxiago».



Nikolas Ormaetxea *Orixek*. HITZA

Modu askotan egin daitezke autohistoria, Apalategiren ustez: artxiboetan, dokumentuekin eta abar. Eta gutun pertsonal pribatuak ere oso laguntza handia izan daitezke. «Baina horiek jasotzea eta argitalpenarako prestatzea, irizpide batekin, oso lan zaila da, ematen duen baino zailagoa». «Iztueta aita-semeek irizpide bat sortu dute, eta hori ez da kasualitatez eta gauerdiko eztabaidatuta, asko miatu eta eztabaidatuta».

Euskal Herriko lurralde gutunetako idazle klasiko ezagunen gutunak jasoko ditu Gutun-sorta bildumak, argitaletxearen arduradunek dituzten asmoak gauzatzen badira. Horretarako Utriusque Vasconiae argitaletxeak, argitaletxe txikia denez, erakundeen laguntza beharko duela ohartarazi du Apalategi, eta oraingo alde horretan zoria izan duela, Gipuzkoako Foru Aldundiatan babesa eskuratu baitute. ◀

LEITZA ▶ PILOTA

Barriolak asteburuan egingen du azkeneko entrenamendua

Finala atzeratuko zela jakitera eman zutenetik, mediku eta masajistekin dabil, ahal bezain laster bere onera itzultzeko



Abel Barriola finalurreko material hautaketa egin ondoren, Beotibar pilotalekuan. M. SOROA

NAIARA GARZIA

Larunbatean finala atzeratzeko erabakia hartu zenetik Abel Barriola mediku eta masajistekin dabilela esan du bere botileroak, Joxe Antonio Olaetxeak. Martinez de Irujok herenegun egin zuen bere entrenamendua, eta Barriolak, berriz, astebururako utziko du berea, «momentuz ez baitzaio komeni ariketa gehiegi egitea». Ibon Arakistainek, Aspe pilota enpresako prentsa ordezkarriak, azaldu duenez, «larunbatean entrenatzen ari zela orkatilean pisua jartzean zitzada sentitzen zuela ikusi eta partida atzeratzea erabaki genuen».

Final baten aurrean normalean urduritasuna izaten da, are gehiago horrelako usteka-

be bat gertatzen denean. «Hobe da jokatu behar denean jokatzeko eta kitto, bestelako arazorik gabe», azaldu du Olaetxeak. «Bestela ere nahikoa kezka izaten da, eta horrelako ezuste batekin ohiko kezka gain beste bat izaten duzu». Egun hauetan, beraz, masajista eta medikuen eskuetan jarraituko du Barriolak, eta asteburuan entrenamendu fuertea egin beharko du, finala aurretik azkenekoa, Olaetxe bere botileroak dioen bezala, «beldurra kentzeko».

Aurreko larunbatean Aspe pilota enpresak Lau t'erdiko finala astebete atzeratu zela jakitera eman zuenetik, nahitaezko epe honek oihartzun handiagoa eman dio 2006ko Lau t'erdiko finalari.

Finalerako aukeratutako frontoia Gasteizkoa izan zen. Bertan 2.200 pertsona sartzen dira, baina kopuru hau ez da inondik ere nahikoa izan jendearen eskaera asetzeko. Ibon Arakistainek azaldu duenez, «sarrera guztiak hiru ordutan saldu ziren eta jende asko kanpoan gelditu zen». Hau dela eta, kexa ugari jaso dituzte, baina finala ikustera hurbildu nahi duen adina jendetza sarrezko frontoirik ez da eraiki oraindik Euskal Herrian.

Gainera final guztiek oihartzun handia sortu arren, aurtengoak jende gehiago erakarri duela bistakoa da, «Barriola bukaeraino iristea ezustekoa izan da eta honek xarma eman dio finalari», esan du Arakistainek.

LEITZA ▶ FUTBOLA



Aurrerakoak denboraldi honetako beste partida batean. J. ASTIBIA

Aurrerak hurrengo fasean jokatu du

Ligaxka hau amaitzeko hiru partida falta diren arren, leitzarrek jada klasifikatu dira

N. GARZIA

Pasa den igandean Arkixkilen jokatu zuten partidaren ondoren Aurrera klasifikatu egin da. Oraindik denboraldi hau amaitzeko hiru egun falta diren arren, Aurrerak jokatzeko dauzkan partidak tramite hutsa izanen dira. Gaur, hainbat partida jokatu diren arren, atsedean hartzea egokitu zaie leitzarrei.

Universidad Publica de Navarraren aurkako partida 3-0 irabazi zuen Aurrerak Arkixkilen. Eguraldi kaxkarra egin zuen igandean, eta euriaren ondorioz zelaia lokaztuta zegoenez, zelai bazterrean zentratu zen jokoa, hemen lokatz gutxiago biltzen baita.

Atsedendia iritsi zenean oraindik markagailuak hutsean egon arren, bigarren zatian leitzarrek hiru gol sartu zituzten, Jon Arangoak bat eta Antton Gomezek, berriz, bi. Aurrerako arduradunek azaldu duten bezala, «partida guztian nagusi izan ginen eta aukera ugari sortu genituen». Jokalari dagokienez, aurreko aste-

an Berriozarren jokatu zen partidaren Unai Olanok mina hartu zuen izarrean eta oraindik lesionatuta jarraitzen du. Jon Arangoak ere igandean muskulu-uzkurdura izan zuen eta oraindik erabaki gabe dago Aurrerari gelditzen zaizkion bi partida hauetan jokatu duen edo ez.

Lurraldeko lehenengo mailan 3 multzo daude, bakoitza 6 taldeetako. Talde bakoitzeko lehenengo hirurak beste fasea pasako dira. 18 izango dira, beraz, osotara, baina hauek, aldi berean, 2 multzo handitan banatuko dira: Nafarroa iparraldekoak (9), eta hegoaldekoak (beste 9). Hauek beste bi ligaxka jokatu dituzte, eta Aurrerari dagokionez, iparraldeko ligaxkan ariko da jokoa. Ligaxka honetako lehenengo hirurak zuzenean Lehenetazko Mailara igoko dira.

Oraingoz, hiru jardunaldi falta direnean, leitzarrek batera beste ligaxkara bi talde hauek pasako lirarteke: San Cristobal (Berriozarkoak) eta Ardai (Zizurkoak).



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Belabieta Udal kirolegia zabalik egongo da gaur, bihar, etzi eta hilaren 10ean, goizeko 10:00etatik 13:00etara.

Tolosa. Txuleta *ren festa*, Zerkausion, 20:00etatik 22:00etara. Orue, Julian, Burruntzi eta Nikolas erretegiak sukaldariak afaria eskainiko dute.

Botarri, Bidebide, Bete-Alai eta Astelena jatekxetan ere emango dituzte afariak.

Tolosaldea. Bai Euskal Herriarik deialdia egin du gaur Durangon *Nazio bat garelako, euskal herritarren eskubideak errespetatu, autodeterminazioa* lelopean egingo den manifestazioan parte hartzeko. Autobusak antolatuta dituzte. Izen-ematea ohiko lekuetan.

ZINEMA

Tolosa. *Prop eta Berta* eta *Los Borgia* filmak ikusgai, Leidorreko zine-forumaren baitan. Lehena ikusi ahal izango da 17:00etan. 19:30ean berriz, bigarren filma eskainiko dute.

ERAKUSKETAK

Alegia. Abenduaren 10era arte Pilarxo Elosegiren margolanak Alegiko jubilatuen tabernan izango dira, asteartetik igandera.

Tolosa. *Esperientziak*, XX. mendeko memoriaren berreskuratze proiektuko elkarrizketen bideoak ikusgai, Aranburu jauregian eta Gipuzkoako Artxibo orokorrean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Leizta. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
 Tolosa. Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
 21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Olentzero... txuri-urdin

TOLOSA ▶ Eguberrietan kaleak argituko dituzten apaingarrien pizte ekitaldia egin zuten atzo; Tolargik egin du instalazioa, 45.000 euroko aurrekontuarekin



Aterkien artean Olentzero Gaztelako Atean ageri zen; bertan izango da hilabetez. E. EZEIZA

ERREDAKZIOA

Heldu al dira jada Eguberriak? Galdera hau otuko zaio, ziurrenik, herri-tarrari herriko kaleak zeharkatzerakoan. Egutegiari begira jarri eta «ez ba, ez dira oraindik heldu!». Bi aste pasatxok igaro behar dute oraindik lehen turriak jateko, baina Tolosako Udalak dagoeneko piztu ditu kaleak apainduko dituzten Eguberrietako argiak. Atzo



Tolosako ikasleen bandak alaitu zuen ekitaldia. E. EZEIZA

egin zuten, hain zuzen, pizte-ekitaldia, Gaztelako Atean. Bertan izan ziren Udal ordezkariak, Tolosaldeko Musika Banda, Alde Zaharra eta Igarondo dendarri elkarteak eta Gari Uranga Realeko jokalaria.

Eguberrietako argien instalazio osoa Tolargik egin du eta bere aurrekontua 45.000 euroko izan da. Apaingarrien kopurua 279tik 406ra igo dute, lanpara kopurua 70.100etik 97.080ra, eta potentzia 130.700etik 151.050era.

Txuri eta urdin, urdin eta txuri. Gisa honetara azalduko dira gaurtik aurrera herriko kaleak. Berrikuntzarik ere barneratu dituzte argi apaingarrietan. Batetik, Nafarroa etorbidean sei zuhaitz apaindu dituzte mikro-bonbillekin. «kaleari presentzia gehiago» emateko helburuz. Bestetik, Zerkausi inguruan 21 apaingarri zuri eta urdin jarri dituzte, behin lanak amaituta. Gaurtik aurrera, gainera, *Txuleta ren festa* dela-eta argi bereziak jartzea erabaki dute: txuri-urdirak, hain zuzen ere.

Bestetik, Gipuzkoako «pasealeku txuri-urdir handiena eta bakarra» egin nahi dute, Zerkausitik abiatu eta Araba etorbideraino, San Frantzisko ibiltokia zeharkatuz. Guztira 600 metroko luzerarekin, 44.000 bonbilla ezarriko dituzte bertan. «Biltokiak gipuzkoar guztiek bisitatu beharko luketen pasalekua izan behar du», adierazi dute Udaletik.

Goiz heldu da Olentzero txuri-urdir jantzita; ez da, ordea lehenago joango. Gabonak bi egun diren arren kaleko argiek hilabetez iraunarazten dute.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZaren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZaren egoitza Leitzan Udaletxeko bulegoa